



Aplikazioak

A.3.- AL eta berrikuntza estrategia

1. Sarrera

Pilula honek, erakunde batean Adimen Lehiakorrak Berrikuntza estrategian betetzen duen papera aztertzen du. Ikus daitezkeen bezala, berrikuntza prozesua osatzen duten jardura askorentzat oso input garrantzitsua da AL, teknologoa, merkatu, produktu, aukera eta abarrei buruzko informazio garrantzitsua ematen baitu..



Berrikuntza Estrategia

2. AL eta Berrikuntza estrategia

UNE:166006-2011 Arauaren arabera, I+G+b-aren Kudeaketa: Zaintza Teknologiko eta Adimen Lehiakorraren Sistema, Adimen Lehiakorra oinarritzko tresna da I+G+b-aren Kudeaketa Sistemen esparruan. Ezagutza zientifikoa eta teknikoa era egokiagoan lortu eta kudeatzeko aukera eskaintzen du, bai eta aplikazio eremuari buruzko informazioa izateko eta inguruko aldaketa eta berrikuntzen esanahi eta eragina garaiz ulertzeko ere. Guzti honek ezinbesteko bihurtzen du produktu, zerbitzu zein prozesu berriak garatzeko, erakundeak erabakiak hartu behar dituen garaian.

Berrikuntzaren kudeaketa prozesuaren baitan, erakundearen barruan berrikuntzak duen jarduna definitzen du berrikuntza estrategiak eta berrikuntzak exekuzioan izango duen norabidea markatuko du. Hori dela eta, helburu den merkatuaren bilakaera ezagutzea beharrezkoa da (gerta daitezkeen hainbat agertoki) eta erakargarrienak direnak aukeratuko dira. Adimen Lehiakorraren jardura kritikoa da berrikuntza estrategikoa definitzerakoan, norabide bat edo bestea aukeratzeko beharrezko kanpo inputak ematen baititu. Inputak mota honetakoak izan daitezke:

- Aukera teknologikoa edo merkatuaren aukerak.
- Teknologia, produktu eta prozesuen arteko elkarrekintzak.
- Teknologien bilakaeraren espektatibak.
- Inbertsio eta komertzializazio aukerak.
- Joera sozialak.



Irudia 1: Berrikuntzaren prozesua

Horrela bada, Adimen Lehiakorrak berrikuntzaren kudeaketaren beste fase batzuetan ere garrantzia handia hartzen du, hala nola:

Roadmapping Teknologikoa: Roadmap Teknologiko bat egiteko, merkatuaren, eskatutako produktuen eta zure negozioan eragina duten iraganeko eta etorkizuneko teknologien eskakizunak eta bilakaera zeintzuk diren aurrez ezagutzea beharrezkoa da. Informazio guzti hau jasotzeko, aktiboa eta eraginkorra izango den Adimen Lehiakorreko Sistema bat izatea beharrezkoa da.

Sormenaren Kudeaketa: Hainbat ikerketa lanek, Adimen Lehiakorrak erakundeen sormena sustatzen duela baieztatzen dute, bai fase dibergente bai fase konbergenteetan ideien sormenerako inspirazioa delarik.

Proiektuen garapena: Proiektu baten garapenaren faseetan, ALak ezinbesteko informazioa ematen du erabaki egokiak hartu ahal izateko. Inpaktu handiko input garrantzitsuak izan daitezke, besteak beste, produktu eta lehiakideekin erlacionatutakoak, proiektuaren gaiari buruzko zientzia artikulua, jabetza intelektuala, doktore tesiak edota garatuko den produktuaren ezaugarrietan eragin handia izango duten merkatu eta sektoreen bilakaerari buruzko informazioa.

Teknologien ustiapena: Erakundeetan I+G-n jatorria duten berrikuntzen ustiapena oso garrantzitsua da edozein erakundeetan, inbertsioa horretan berreskuratzen delako eta abiaraziko diren produktu eta zerbitzu berriak definitzen direlako. Horretarako, jabetza intelektuala, transferentzia teknologien akordioak, edota negozio ereduak ikerketa ezinbesteko lanak dira, informazioak garantiza kritikoa duelarik. Merkatu zehatz baten joera detektatzeak zerikusi zuzena izango du erabakia norabide batean edo bestean hartzearekin. Adimen lehiakorra arduratzen da azpi prozesu guztiak informazio egokiarekin hornitzeaz eta teknologia baten ustiapen bide berrien ikerketan laguntzeaz ere.